

Elkarrizketa baten **prestatzeko** urraspidea

Elkarrizketa aitzin

- 1- Dokumentatzea:** informatzea, landuko den gaiaren ezagutzea, elkarrizketatuko den pertsonaren ezagutzea.
- 2- Galderak prestatzea:** idatziz, segitu nahi den logikaren arabera
- 3- Zure buruaren aurkeztea:** nor zaren erratea, elkarrizketa horretaz zer egingen duzun iragartzea.
- 4- Zure solaskidea gustuan ezartzea:** harekin aipatuko dituzun gaiak laburbiltzea, hautatu duzun ikuspuntua aurkeztea (adib.: musika zaletasuna...).

Elkarrizketa denboran

- 5- Galdera irekiak egitea:** ez dezan "bai" ala "ez" bakarrik erantzun.
- 6- Galdera bat aldian egitea:** zure solaskideak beti azken galderari erantzunen dio eta lehenagokoak ahantziak izanen ditu... eta zuk ere!
- 7- Erantzunak ongi entzutea:** beti badira argitzapenak galdegiteko.
- 8- Solaskidea laguntzea:** batzuk isilak edo herabeak dira mikro baten aitzinean; solaskidea gustuan eman ezazu, galderak beste molde batez itzulika itzazu. Zu zara elkarrizketa horren eramailea!

Ofizioan trebatzeko

- 9- Zure interesa erakuts:** solaskideari begietara so egin iezaiozu, arrazoi eman iezaiozu buru keinu batez baietz erranez,...

Elkarrizketa baten **idazteko** urraspidea

- 1- Izenburu nagusia:** erranaldi labur batez osa ezazu eta **lodiz** idatz.

adib.: **Amazonian bizi**

- 2- Sar-hitza:** elkarrizketaren gaia (nor, zer, noiz, non) laburbiltzen du, zenbait erranaldiz, *letra etzanez*, lodiz edo kolorez idazten ahal da.

Adibidez: **Celiak 9 urte ditu eta Brasilgo Amazonia oihan tropikalean bizi da.**

- 3- Galderak eta erantzunak:** bat bestearen ondotik heldu direnak.

Galderak "**zu**" edo "**hi**" izenordainarekin osatuak dira eta erantzunak "**ni**" izenordainarekin. Galderak eta erantzunak edo solaskideen izenak usu kolore ezberdinez idatziak dira.



Adib.:

Non bizi zara?

Celia: Amazonia oihanaren hegian den etxe ttipi batean bizi naiz. Ene hiru ahizpekin gela berean lo egiten dut.

Zer egiten dute zure burasoek?

Celia: Ene burasoak laborari dira...